

ttipi-ttapa

1990eko otsailak 1

31. zenbakia

gohean banatzen da





NON-ZER

4. Beharrezko telefonoak.
5. Agenda.
6. Irakurleak mintzo.
7. Karriketan galdezka.
8. Prentsan agertua.
- 9/19. Herriz-herri: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Goizueta, Sara, Bertizarana.
20. Erreportaia. P. LARRETXEA
22. Elkarrizketa. JUAINAS
23. Kirolak.
24. Osasuna.
25. Astrologia. F. ALTZUGUREN
26. Merkatu Tikia.
27. Denborapasa. ENBIDO

Berriki, joan den urtearen azkenaldera, Nafarroako Gobernuko kontseilari den Antonio Aragonnek, Belateko Tunelaren Aurreproiektua ezagutzera eman zuen.

20. or.



Euskadiko Kros Txapelketa otsailaren 18an Donezteben jokatu da. Aukera paregabea euskadiko lasterkari hoberenak ikusteko.

23. or.



Eduardo Gil Bera, -filosofo, poeta eta ipuinlaria- urte bat zuenean etorri zen Elgorrira bizitzera. Gerroztik, han eta hemen, hameka buelta emana da, berriro Narbartera itzuli aintzinean.

22. or.



Osasun Kontseiluak lirateke dudarik gabe, osasun arloan azken aldiotan eman den berrikuntzarik nabarmentenak. Ikus dezagun zein egoeratan dauden gure eskualdekoak.

24. or.

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortziritako Euskara Mankomunitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karmele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Patxi Petireña, Txema Alda-

be, Iban Isasi, Juainas, Koro Etxeberria, Koro Irazoki, P. Larretxea, Gotzone & Anton, Mattari Altzuar-te, Arantxa Zabala eta Enbidok.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Copyright: *ttipi-ttapa*

Tirada: 2.000 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunik.

BEHARREZKO TELEFONOAK

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo	580235
Doneztebe	594300
Lesaka	637336
Leitza	510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	594183
Sunbilla	594283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera	630036
Etxalar	635105
Urdazubi	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	251500
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino erresidentzia	262700
Gurutze Gorria	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	594242/594342
DYA	
Leaka (larrialdiak)	(943) 464622
Elizondo (larrialdiak)	171717
FUNERARIA	
Lesaka	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leizaran	515018
HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	594335/594336

Okerrak zuzentzen

Lehengo alean, karriketan galdezka sailean, hankasartze nabarmena izan genuen; Perurenak 113kiloko harria altxatuz marka berria jarri zuela erraten baikenuen, 313 kilokoa izan zenean altxatu zuena. Ez da txantxa alajaina, 200 kilo kolpez kentzea!

Ziur hago Iñaki, 314 kilokoa altxatzen dukenean, xuxen eta txukun jarriko dugula.

Gurutzegramaren soluzioa

Aurreko alean argitaratu genuen gurutzegramaren soluzioa eskeintzen dizuegu hemen.

Seguro, bat baino gehiagok berehala asmatu izanen zuela. Dena den, bakarren bat zintzilik gelditu bazen nunbait, orain-txe du zalantzak argitzeko aukera.

DENBORA PASA

31. 04. 1991 - 14. egun dago. 27

Euskara ikastaroak

- Hobetzeko**
- Astean 4 ordu (Bi egunez)
- Astean 4 ordu (Larunbatez)
- Astean 8 ordu (Lau egunez)
- Astean 8 ordu (Lau egunez 2 Hilabetetan)
- Ikasteko**
- Astean 8 ordu (Lau egunez)



Leitza 61 07 76 - Malerreka 59 46 87 - Bortziriak 63 77 96

1 ORTZEGUNA

-**Doneztebe**, Arratsaldeko 5,30etan, eskoletan, Euskal Herriko Kantu Txapelketa antolatzeko bilera.

-**Elizondo**, arratsaldeko 20,00etan Baztango EKBren bilera Arizkunenea Kultur Etxean.

2 ORTZIRALA

-**Sunbilla**, Frantxixku Graziarenari omenaldia *Arkupeak* Elkarteak antolaturik. Meza, Folklore eta Kirol jaialdia eta bazkaria.

-**Goizueta**, Mahai Ingurua: Euskara Administrazioan (I).

4 IGANDEA

-**Bera**, mendi ateraldia Larun Mendi Taldeak antolaturik (Trenbidea-Matxain).

-**Elizondo**, arratsaldeko 7etatik 11etara dantzaldia Arkaitz

Taldearekin. Lekua: Baztandarren Biltzarren gorapetan.

6 ASTEARTEA

-**Lesaka**, arratsaldeko 6etan Euskara Batzordearen bilera.

10 LARUNBATA

-**Goizueta**, arratsaldean filme baten emanaldia (oraindik zehaztu gabea).

11 IGANDEA

-**Elizondo**, arratsaldeko 7etatik 11etara dantzaldia Minxoriak Taldearekin. Lekua: Arkupeak.

-**Sara**, arratsaldeko 4etan bertso saioa: Lopategi, Eguzkitze, Lizaso, Arzallus, Ezponda, Mendiburu eta Xanpun.

12 ASTELEHENA

-**Igantzi**, arratsaldeko 7etan Euskara Batzordearen bilera.

IKASTAROAK

-**BERA**, Euskal Dantza ikastaroa larunbatetan goizeko 10etatik ordu batetara Gure Txokoa Elkarteak antolaturik. Apuntatzeko, Frontoi ondoko lokaletara joan zaitezkete.

GOARDIAKO BOTIKAK

-**Otsailaren 3-4ean** Lesaka eta F. Iturralde (Elizondo).

-**Otsailaren 10-11an** Etxalar eta F. Lezaun (Elizondo).



ARROPA ETA OPARI DENDA
EXIMELETA
Mercaderes 9
DONEZTEBE



MALDAERREKA S.A.
EHORZKETA ZERBITZUAK
Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA
PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK
Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

ERLOJU ETA BITXI DENDAK




Legia 1, BERA Tfnoa: 630751 Merkatua k. DONEZTEBE
KONPONKETAK EGITEN DIRA

Zorriak entsaladan

Batzutan, etxera joateko astirik ez dudalako edo bertze edozein arrazoiengatik, ostatu batera edo bertzeraz bazkaltzera joan behar izaten dut. Diru sobera ez dudanez, aukeratzen ditudan jatetxeak eguneko menua eskeintzen dutenak izaten dira. Eta menuaz idatzi nahi dut, normalean horrelako jatetxetan eskeintzen direnak, nahiko eskasak dira; kalitateaz ere eskasak, kasu hoberenetan ezin jakin ere, eskeintzen bait dira. Adibide gisa aipatuko dut, Berako jatetxe batetan eman zidatena, entsalada eta arraina eskatu nuen; entsaladak zituen osagarriak harriturik utzi ninduten, letxuatik aparte zorri berde pilo bat zeuden, zerbitzariari erran, platera eraman eta hurrengoia ekarri zidaten, ez nuen barkamenik entzun eta menua ordaintzerakoan ez zidaten horrelako produktu exotikoenegatik gehiago kobratu. Halere egia

osoa erraiteko badaude jatetxeak eguneko menuan jana ugari eta kalitatezkoa eskeintzen dutenak prezio berean, Doneztebeko jatetxe bat kasu.

Inaxio Oiartzabal

Kaixo lagunak:

Badakit *ttipi-ttapa* aldizkaria argitaratu duzuela. Nik berriak euskaraz irakurri nahi dut eta mesedez *ttipi-ttapa* aldizkaria eskuratu nahi dut.

Gaizka Zelaieta, Irain eskolako ikaslea.

Ni Ana naiz. Entzun dut aldizkari bat atera duzuela. Nik Lesakara bidaltzea nahi nuke hemen erdera erabiltzen delako. Neri euskaraz gustatzen zait. Segi hola eta suerte ona. Besarkada bat.

Ana Etxegarai, Irain eskolako ikaslea.

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzitako 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



B RADIO BIDASOA

SUKALDE ALTZARIAK

Legia, 42 Tfnoa: 630377 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA KONPONKETAK

OSKORRI

LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ttipi-ttapa

63 11 88

Iñotiak bertan ditugu. Prestatu al zara parranda egiteko? Atera zara inoiz joaldun modura edo mozorroturik?

Zubietan eta Iturenen egina



Blanka Etxeberria,
Zubitakoa

Ez naiz mozorratzen. Jende asko etortzen da, umeak batez ere. Halere, uste dut jendea etortzea onerako dela, horrela ezagutzen dute gure giroa.

Jose Antonio
Loiarte, Zubitakoa

16 urtetan hasi nintzen joaldun ateratzen. Sekulan baino jende gehiago etortzen da, ume pila! Giro ona egoten da.



Isabel Etxeberria,
Itungoa

Ni mozorratzen nintzen. Zubitan mas a lo gitano mozorratzen dira, irri egiteko hobe! Kanpoko jende aunitz etortzen da.

Fermin txo
Erregerena, Itungoa

Niretzat urte osoa iñauteria da. Fiesta jo ta fuego, jan, edan eta dantza. Bertakoekin edo kanpokoekin besta egin eta ongi pasa!



Nerea
Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

Lara **MUSIKA DENDA**
San Esteban 37
Tfnoa: 63 10 59
BERA

Zikloak
LESKA

BEKO-ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 637826
LESAKA

GAI A OSASUN-DENDA
BELARRAK
DIETETIKA
EDERGAIK
Hilean behin mediku naturistarekin kontsulta
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

Artaldeak dituztenentzat, Europako Elkarte ekonomikoaren diru laguntzak

1990eko hilbeltzaren 25etik otsailaren 15eraino iraunen du, Europako Elkarte Ekonomikoak ardi eta ahuntz jabeei emango dizkien diru laguntzen eskaerak egiteko denbora.

Gutienez 10 ardi edo eta ahuntz izan beharko ditu aipatutako diru laguntza horietaz baliatu ahal izateko.

Ahuntzetan, Nafarroako mendialdekoak bakarrik izanen dute laguntza.

Aukeratuak bezala kalifikatuak daudenak bakarrik lortuko dute prima. Horrelakoak kontsideratzen dira lehenengo aldiz nabarmenki ernari daudenak eta umaldi bat guttienez egin dutenak. Eskaera horretan ez dira kontutan hartuko, zaharrak izateagatik, saltzeko daudenak.

Eskaerak egin dituztenek, 1990eko maiatzaren 26a arte (100 egun) mantendu beharko dute eskae-

ran agertutako ardi edo ahuntz kopurua. Bitartean bajaren bat suertatzen bada 10 egun baino lehen Osasun Zentroetako Bulegoetara gaztigatu beharko da idatzi baten bidez. Modu guzitan albaitero baten agiri batez egiazta daiteke.

Eskaera txartelak eta bertze gainerako agiriak herri bakoitzeko Nekazal Ganbaratan edo Osasun Zentroetan.

Eskaerak katastroaren ziurtagiri batez lagundurik bidali beharko dira, bertan, ardi edo ahuntz kopurua agertuko dira. N.A.N.ren eta explotazio txartelaren fotokopiak ere eraman beharko dira.

Eskaerak edozein egunetan eraman daitezke, ondoren agertzen diren egun eta orduetan:

Iruñea (Monasterio de Urdax, 28 -1): Lan-egun guzietan 8etatik 15etara.

Doneztebe: Otsailaren 5ean, 9etatik 14etara

Elizondo: Otsailaren 6ean, 9etatik 14etara.

Zerri "puxkak" analizatzeko lekuak eta ordutegiak

... martxoaren hasierartio.

Elizondon, Osasun Zentroan; **Beran**, astelehena eta asteazkenetan, 12etan, Herriko Etxean; **Etxalarren**, astearte eta ortzegunetan, 12etan, Herriko Etxean; **Arantzán**, astearte eta ortzegunetan, 11,30etan, Herriko Etxean; **Igantzin**, asteazkena eta ortzegunetan 11,30etan, hiltegian; **Lesakan**, astelehenetik ortzegunerarte, 13ean, Osasun Zentruan.



Gozotegia - Ostatua

Eztegara 8 - Tfnoa. 63 02 54
BERA



KIROLAK ZELA

Altzate 6 - Tfnoa. 63 05 98 BERA



Baztan, Bidasoa eta Male-
rrekako etxe, baserri, pisu,
bajera, eraikitze lurrak
eta eremua duten borden
berri ematen da

Jose Antonio Elizondo
EZKALO

Tfnoa: (948) 59 40 54 Intzakardi, 8
DONEZTEBE

ttipi-ttapa

63 11 88

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Beheko Plaza 8, LESAKA

"XVIII Bera Ipuin Lehiaketa"ren lan hobereenen egile eta "IV. Test Beratarra"ko irabazleei sariak banaturik Jamotenean.



Gure Txokoak antolatutako sariketetan, hauexek izan ziren saritu guztiak.

ROMAN HARRIBILAGA

Mailaz maila hauek dira saritutako lanen izenburuak eta beraien egileak:

9 urtekoen artean, Saioa Ataunek idatziriko "Barazkien arteko bilera" lana gertatu zen irabazle; aldi berean, bi "aipamen berezi" eman zizkien Gorka Retegiren "Mago bat ezagutu du" eta Eneritz Mitxelenaren "Mutil totela"ri.

10 eta 11 urte artekoen mailan, Jon Irazokiren "Baserritik industria-ra" izeneko lana izan zen irabazle, eta Amaia Pandoren "Marrazkian sartuta" ipuinak "aipamen berezia" lortu zuen.

12 eta 16 urte artekoen mailan, Jon Abrilen "Zergatik nahiko zuen?" lanarentzat izan zen lehen saria; Ainhoa Irazokiren "Gure kondaia" ipuinak ere "aipamen berezia" eskuratu zuelarik. Guzti hauei sari modura, oroigarriak eta liburu mordo bana eman zitzaizkien. Aipatu bertzalde, Gure Txokoa izeneko ipuin lehiaketara ez zela lanik aurkeztu eta ondorioz hutsik geratu zela. Bertzalde, IV.

"Test Beratarra"ren irabazleak hauek izan dira: Aitor Berrueta Astondo, Estibalitz Berrueta Astondo eta Beatriz Goikoetxea Crespo. Sari modura liburuak.

Udalbatzak lege aginduz akordio baten etendura onartu

Berako Udalbatzak, ez ohizko eta premiazko plenoan hartutako erabakiaren arabera, Bortzirietako Intsumiso eta Kontzientzia Eragozleen izenean aurkeztutako proposamenaren aldeko akordioaren etendura lege aginduz aho batez onartu du. Era honetan, Nafarroako Justizia Entzutegiak akordioari buruz hartu duen erabakia eta Defentsa Ministeritzak Zerbitzu Militarerrako Legetik sortzen diren beharkizunak oroitaraziz igorritako idazkia ezagutu ondoren gertatu da. Akordio berri hau bertze bi puntuz osaturik dator: derrigorrez zerbitzu militarra betetzera behartzen duen legearen deuseztapena eskatzea eta hartutako akordioa Euskal Herriko Udal guztiei ezagutzera ematea

■ Suteak kaltetuentzako dirulaguntzak

Bi dira dagoeneko Udalak Iruñeko Gobernuaren aurrean bideratuko dituen dirulaguntza eskariak. Eskaeren arabera, 33 ardiren galeragatik 330.000 pezeta eta zerrakura baten deuseztapenez 106.000 pezetatakoak dira kalteen ebaluaketak.

■ Norma Subsidiarioen onespina

Udalbatzak, aho batez, Berako Norma Subsidiarioen behin-behineko onspina erabaki du ohizko bilkura orokorrean, aurretik bi alegazio onartuta, legeak eskatzen duen arabera. Erabakia Iruñeko Hirigintza eta Ingurugiroa Batzordeari igorria izan da.

■ Trafiko istripu larria

Zalain Zoko auzoan bizi den 40 urteko Balentin Garbisuk zauri larriak jasan zituen urtarrilaren 12ko ilunabarrean Verkolen aurrean izandako trafiko istripuan. Dirudenez, Balentin moitoan joaki zelarik auzora joateko keinuak egin arren, atzetik zihoazten bi kotxetatik bigarrenak ez zuen ikusi eta bete-betean harrapatu egin zuen. Ondoren, Donostiako Erresidentziara eraman zuen, bertan geratuz.

■ Euskal dantza ikastaroa

Gure Txokoatik adierazten denez sei urteko adina beteta dauten mutiko eta gizonezko helduentzat antolatutako ikastaroan parte hartzeko epea oraindik zabalik dago. Nahi duenak, Eztegarra frontoiaren ondoan, Gure Txokoako bazkideek erabiltzen duten egoitzara ager dabila, larunbatetan goizeko 10,30etatik 13,00ak arte.

Lesakako Laminazioak, fabrika haunditzeko prest

M.K.T.

1989ko abenduaren 20an Lesakako Laminazioak, Herriko Etxean fabrika haunditzeko eskaria sartu zuen. 1990ean zabalketaren 1. fasea, hau da, nabe bat egiteko asmoa agertu dute, 2. nabe bat egiteko aukera zabalik uzten dutelarik etorkizunerako.

Zabalketa hauek Konbentuaren inguruan, 1.250 izeneko nabeari erantsirik kokatzen dituzte.

Eskari honetan eta Konbentuari dagokionez, eliza eta ondoko eraikuntza, ekialdera dagoena hain zuzen, mantetzearen aldekoak agertzen dira. Aldi berean, edifizio osoaren mantenimendua eta konponketa garestia dela kontsideratzen dute eta parke publiko bat egiteko proposamena luzatzen diote Udalari. Aipatu beharra dago Konbentua, Principe de Vianak *Momumento Historico-*


Artístico bezala katalogatua duela.

Kamioi aparkalekuari dagokionez, Udalaren eskutan uzten dute leku aproposago bat bilatzea, aldaketa egin ondoren leku gutxi geldituko bait da.

Bertze aldetik, guzti hau egiteko Ollartegiko bidea desagertu egiten da eta Udalak lortu behar izanen du lurren jabeengandik behar diren baimenak enpresa honek lortzerik izan ez duenez.

Fabrikak Udalari lur batzuk eskeini

Fabrika Konbentua eta Asiloaren arteko lur batzuren jabea da eta leku hau, Norma Subsidiarioen arabera, kiroldegia egiteko izendatua dago. Fabrikak Udalari 2.000 pezeta metroko eskeintzen dio, ordaintzeko epea bortz urtetakoa izanen delarik, Udal Zergetik deskontatuz.



Postal honekin zoriandu zien L.L.k bere langileei eguberrietan

■ “Euskara Nafarroan” I. Erakusketa Lesakan

Nafarroako Gabernuak Udalari “Euskara Nafarroan” I. Erakusketa egiteko luzatu dion aukera aho batez onartua izan zen. Honetarako egin behar diren tramiteak martxan jarri dira jadanik.

■ San Antoneko basiliza moldatzeko asmoa du Udalak

San Antoneko basilizaren zola hagitz hondatua zegoenez, egurrak kendu eta hormigoiko kapa bat bota da. Basiliza hau arrunt zaharkitua aurkitzen da eta berriztatze proposamena eztabaibatatu ondoren, Elizari baimena eskatu eta arkitekto bati eskatuko zaio berritze honen proiektua egiteko.

■ 1989 urtean hildakoak eta jaiotakoak parekatu dira

Joan den urtean, Lesakan hildakoak 20 izan ziren jaiotakoak kopurua berdina izan delarik (20). Ezkondu direnak berriz, 16 bikote izan dira.

■ Lesakako liburutegia zabaldu da


Hilbeltzaren 15ean, Lesakako liburutegiak bere ateak zabaldu zituen. Ordutegia, arratsaldeko 5etatik 8etara izanen da eta astean hiru egunez: astelehena, asteazkena eta ortzirala hain zuzen ere. Bibliotekariak gatzigatu digunez, etorkizunean baliteke egunero idekitzea bertara joan nahi duenarentzat.

Industri Poligonoa Beolaldean?

PELLO APEZETXEA

Oraindik erabaki gabe badago ere, Beolaldean industri poligonotarako eremua aukeratuko eta deklaratu ote duen pentsatzen ari da Udalbatza edo Korporazioa. "Usoa" kooperatibatik Santakruz alderako alderdia izanen litzateke, 15.000 metrotako azalerarekin. Asmo hutsa da oraindik, lehen

erran bezala. Bertako lurren jabeekin hitz egin beharra dauka orain, eta Iruñeko agintarien onspena eskatu gero. Poligono horrek lantegi ttikietarako bakarrik balioko luke, eta ideia horretaz sortutako egitasmo edo projektua da. Lorpen-ek lantegi berria hor erakitzeko gogoia agertu omen du dagoneko.



Goian Beolalde. Arrakoitz aldeko industrialdea, momentuz, erreserbatako.

■ 1989. urtean bortz jairo dira.

Hildakoak, berriz, hamar. Be-rauen adina, hauxe: 91 (bik), 83, 81, 80, 75, 73, 56, 51 (bik). Ezkondu zortzi. Bi kanpora eta sei herrian bizitzen gelditu direlarik. Seietatik bik kanpoko laguna ekarri dute herrira. Bertze lauak bertako bi bikote ditugu.

■ Lapur pasa?

Horrelako zerbait dirudi azkenaldian gertatzen ari denak: lapurreta ugari sumatu baita. Eta jende arrotza etxe barnean topo egin behin baino gehiagotan, ikara ederrak eramanez batzutan. Herrietan etxetako atek irekiak edukitzen ditugulako edo, gero eta gehiago ausartzen ari zaizkigu ezezagunak barneraino sartze-ra.

■ Usategietako igandeko kontuak

Gastuak 183.424 pezeta izan dira; sarrerak 359.977 pezeta, beraz, 176.553 pezetatako irabazia izan da.

IGANTZI



Laister, ur murrizketak

Aspaldiko hilabetetan euririk egin ez duenez, larritzen ari da Igantzi uraren egoera. Hilabeteak dira baita ere herriko deposito nagusia betetzen ez dela eta azken egun haue-tan egoera txartu bertzerik ez da egin. Azkeneko euriek ez dute gauza haundirik moldatu edo hobekiago erranda ez dira nabaritu ere.

Duela hilabete bat edo Udalak ohar bat kaleratu zuen aholku batzu eman- ez. Aholku hauen arrazoia, urak murrizketarik gabe ahalik eta gehiena irautea da funtsean.

Aurten argiak berrituko dira

OSKAR TXOPERENA

Projektua egin eta dagoeneko onartua dago Nafarroako Gobernuan dagokion sailan. Bakar-bakarrik Udalaren presupuestoa onartzea falta zen eta hori azkeneko plenoan onartu da. Presupuestoa 17.507.973 pezetatakoa da guztira. Hauetatik Nafarroako Gobernuak 12.693.280 pezeta jartzen ditu eta Igantziko Udalak berriz, 4.814.693 pezeta. Obra honek aunitz hobetuko du argiaren arazoa, bonbila gehiago jarzteaz gain, orain arte argirik gabe zeuden auzotara iritsiko baita. Adibide batzu paratzeagatik: Sarrola guztia hartuko da Etxe-ttikira ailegatu arte, Iruienako atarera arte ere

joanen da, Etxe-zar aldera ere sartuko da, bertze aldetik Igelar auzoko etxe berriak arte etab.

Bentan ere hobekuntzak nabariak izanen dira, auzo guztia alde batetik bertzera hartuko du eta.

Igantzikiko Bentan, errepetidore berria paratuko da

Udaleko azken sesioaren aurretik, Igantziko Bentako auzotarrek eskaera bat aurkeztu zuten, beurek auzoan zeukaten errepetidorea Udalak nolabait konpontzeko erabakia har zezan. Errepetidorea azken su-teetan erre egin zen. Eskaera Udalean trataturik haxe izan zen hartutako erabakia:

Igantzikiko Bentako auzotarrekin bilera bat egin hiltzaren 15ean gaia hurbiletik ezagutu ahal izateko.

Bilera honetan lortutako akordioak hauek izan ziren:

Nafarroako Gobernuak gai honetaz deus egiteko intentziorik ez daukenez, nolabait Udal eta auzotarren artean egingen dela.

Gutti gora behera 280.000 pezeta gostako dela jakinik, Bentako familia bakoitzak 8.000 pezeta paratu eta gainekoa Udalaren eskutan utzi.

ARANTZA

Katastroaren berritze lanak hasi dira

JON LARRETXEKA

Herriko katastroa berritzen ari dira eta jende mordo ederra ari da pasatzen Herriko Etxetik, bakoitzak bere lurak ezagutu, mugatu eta mapa berriari kokatzeko.

Behin mapa hau osatuz gero epe bat utziko omen da *exposición pública* delakoan jendeak berriro ikus dezan ongi egina dagoen edo ez, eta horrela behar diren aldaketak egiteko.

Epe hau pasatuz gero Udalak behin betirako onartuko du katastro berri hau.

Herriko Etxeko artxiboa moldatuko dute.

Artxiboaren egoera kaxkarra eta nahasia ikusirik, aspaldian galdetu zion Udalak Diputazioari hau tajutu eta moldatzeko laguntza.

Badirudi oraingoan txanda eman digutela eta hiru lagun bialdu dizkigute lan astun hori egiteko.

Lan ederra izango dute dena ongi moldatzen eta sailkatzen!

Antton Maiz erdifinaletara

Joan den igandean hilak 21, bere biziko partidua jokatuz eskuratu zuen Antton Maiz pilotari haundiak erdi finaletarako txartela Vergara lagun zuelarik.

Errandonea eta Retegi II zituzten

aurka eta partidu luze eta gogorrean 22-20 garaitzea lortu zuten.

Zezeaga eta Alustizaren aurka jokatuko beharko dute erdifinaletan. Sorte on opa diogu!

Urrezko eztaiak

Otsailaren 4ean bi senar-emaztek ospatzen dituzte euren urrezko eztaiak. Alde batetik M^a Josefa Oskoz eta Lorenzo Mutuberria Usaineko-bordan bizi direnak eta bertzetik Angel Mutuberria eta Maria Pikabea Morenbordakoak.

Burlada jatetxean izango dute bazkaria euren seme-alaba eta seni-tartekoekin.

Egun eder eta zoriontsu bat opa diegu!



Hogeiren bat lanpostu sortuko direla Iluron ziurtzat jotzen da

TXEMA ALDABE

Hainbertze gora behera ondoren, 19-24ren bat lanpostu sortuko direla ziurtzat jo daiteke, hauetatik 10 fijoak izan direlarik. Horixe onetsi zuen mankomunitateak, hilbeltzaren 23an izandako bileran. Donostiar batek aurkeztu zuen aintzin proiektua onartu egin zuten ordezkariak. Eraikiko den lantegi berri honetan arrain hormatuen laboraketa, prestaketa lanak egingen lirateke. Epe laburrera ere denda bat irekitzeko asmoa dute.

Aurtengo abuzturako martxan egon behar luke zuzenbidean lantegiak. Orain dagoen eraikuntzaz gain, errekaldeetik bertze bat eraikiko dute. Eraikuntza honek eta lantegi osoa martxan paratzearen kostoa 102.185.000 pezetatara baloratua dago. Honi gehitu behar zaio 3.639 metroren balioa, metroko 1.000 pezeta.

Malerrekako Mankomunitate industrialak eskatu duen baldintza bakarra zera izan da; guttienez 25 urtez martxan egotea lantegia, bertzela, lurra eta eraikuntzaren jabegoa mankomunitatearen eskutara itzuliko litzatekeelarik.

■ Malerrekako Euskara Zerbitzua berriz martxan

Hilbeltzaren 19an hauxe onartu zen: Euskara Zerbitzua berriz martxan jartzea, horretarako Ines Gereka koordinatzaileari kontratua berrituko zaio. Udal guztiak, hau da, 13ak deituak izan bazira ere bilera honetara Oitz, Ituren, Bertizarana, Zubieta, Urrotz, Elgorriaga eta Doneztebeko udalen ordezkariak agertu ziren.

■ Osasun kontseilua ez zen berritu

52 deialdi karta banatu baziren ere Udal, eskola kontseilu, elkarte, sindikatu guzietara, hamar berterik ez ziren agertu Osasun Kontseilu berri berrituz bilerara. Agertu zirenak Elgorri, Ituren eta Urrozko udalak, LAB sindikatua, Malerrekako Euskaltegia (IKA), Narbarteko guraso elkarte, Arkupeak eta Doneztebe, Sunbilla eta Narbarteko Eskola Kontseilukoak.

SUNBILLA



Frantxixku, orain dela hiru urte egin zitzaion omenaldian.

Frantxixku Graziarenak ehun urte bete ditu eta omenaldi beroa eskeiniko zaio

Hagitz bakan ematen den gertaera honen ospakizun eguna ailegatua izanen da seguraski *tipi-tapa* hau zuen eskutara iritsi orduko. Izan ere, Frantxixkuren ehungarren urtebetetzea Otsailaren 1ean izanen da eta Otsailaren 2an, ARKUPEAK jubilatua, pensionista eta alargunen elkartearen eskutik Sunbillan egingen zaio omenaldia.

Zoritxarrez, hain egun haundian eta ongi merezitako omenaldian Frantxixkuk nekez hartuko du parte antolatutako ekintzetan, bere bizitza guzian sendagileen behar haundirik izan ez duen gizon kottorra azken egunotan bronkitisak harrapatu bait du. Lehenbaitlehen bizkortu dadila desio diogu berari eta bere familiari.

Hala ere, aintzinetik prestatutako programa guzia burutuko da. Hau da: **10,30etan**, Sunbillako elizan, meza, herriko korala eta bertsolariekin. **11,45etan**, folklore eta kirol jaialdia frontoian: Larretxea eta Mindegia aizkolariak, Garmendia eta Azpillaga bertsolariak, Sunbillako dantzariak, "Navarrerias" taldea eta Erramun Martikorena abeslaria, aurkezle lana Iñaki Peru-

rena, Gabriel Saralegi eta "Basarri" k eginen dutelarik. **Eguerdiko 2etan**, bazkaria, Sunbillako ELOR-TXURI, Almandozko BEOLA eta bertze jatetxe batean, haundia bait da Arkupeak elkarteak gaur egun mugitzen duen jende multzoa. **Arratsaldeko 5etan** berriz frontoian folklore saioa eta dantzaldia, AMA-LUR orkestarekin, ondoren autobusak beren lekuetara itzuliz.

Erran behar da ortzegunean bere etxean, Espelosinen, senitarteko ospakizuna eginen dutela, bere 6 seme-alaba, 12 iloba eta 10 bilobak han egonen direlarik.

Lehen erran bezala, zorionak Frantxixkuri eta familiari eta hurrengo urtebetetzean bizkor egon dadila.

PATXI PETRIRENA

ITUREN

Iturengo frontoia estaltzeko baime-na eman du Principe de Vianak

IBAN ISASI


Orain dela gutti Principe de Viana erakundeko arkitektu nagusiak egindako bisitaldian, Frontoia egiteko baime-na agertu zuen. Aipatzekoa da, pilareak eta frontoiaren beste zenbait zati egiteko erabiliko diren harriak, Principe de Vianak oparituko dizkiola Iturengo herriari.

Telefono linea berriak lurrarazitik jarriko dira

Hasiak dira honez gero linea berria sartzzen Plaza aldetik beheiti. Erran bezala, linea hau lurrarazitik jarriko da eta horrela jarriko dira hemendik aintzineraren eginen diren luzapen guziak.

Makrame eta saskiak egiten ikasteko, ikastaro berria has-tear

Aurrekoa kuadro tridimentsionalak egiten ikasteko izan zen modura, oraingoa berriz eskulangintzarena izanen da, makrame eta saskiena ale-



gia. Dagoeneko 17 pertsona apuntaturik daude ikastaro honetara. Norbait gehiagok apuntatu nahi izanez gero Udalan eman dezake bere izena. Aintzinekoak bezala, hau ere EPA eta Udalaren artean antolatuta dago; Maiatzaren erdi aldean bukatuko delarik.

Udaletxeko lanak

Lehenago Soziedadea zegoen lokalean, orain Iturengo Herriko Ostalariaren almatzen, komuna eta ostalariaren pisura joateko eskalera eginen dira. Gainera, ostalariarentzat den pisu berria bukatu dute eta aguro Iñarreatik pisu

horretara joanen dira bizitzera. Hone-taz aparte, idazkaritza, Sesio Aretoa, Kirol Zerbitzuaren gela, Alkatearen gela eta Oposizioarena ere eginak daude. Laster hauek ere horrat joanen dira lan egitera, orainarte hauek ere Iñarrea etxearen behean bait zeuden.

Iraupen gimnasia ikastaroa

25 emakume dabilta gimnasia pixka bat egiten Udaletxeko Erabile-ra Ugariko gelan. Izerdia aterarazten dien monitorak, Miren du izena eta Goizuetakoa da. Ageri denez, itxura mantentzeko eta artrosis eta bertzelako gaixotasunetzat ona da.

Aizkol apustuak

JUAINAS

San Antonek bere egunean jasotako eskakizun guztiak bete baldin bazituen Zubietako mando gehinek *tentaziotik* kanpo egonen dira. Gizasemeak daude, orain eta beti, tentazioen alorrean. 110/120ko 12 enbor bat dira muga. Jose Antonio eta Jose Martinen alde ala Ezekiel eta Patitaren fabore? Iñotitako igandean txapeldun berriak, aberastuak eta galtzaileak izanen dira Zubietan... denak Fiestaren alde!

Iñotik izanen dira errotazai berrien estrenua

Iñotitako hirina ehotzen jo ta fuego ari dira dagoeneko. Lau, eta lagun piloa, dira errota zaharraren morroiak. Urtean sei mila duroko errenta ordaindu beharko dute, etxe-bizitzaren konponketa guztiak beren kabuz gelditzen direlarik: ura, komuna, argia... gogoz eta sasoiez sartu direla dirudi.



Zubietan jaio eta Ittunan apuntatu

Errotakoak, laketzen baldin badira, zubietar berriak lirateke, adinduak, jaio berriak gero eta bakanagoak bait ditugu eta direnak, Ittunan apuntatzen dituzte, jakin dugunez. Sinetsi, sinetsi! Antesko-bordako mutiko berria, Jon,

adibidea dugu. Bere aitak Ittunan apuntatu du, sekretarioa bertan zegoe-lako. Tamainako alperra! Haurra betiko markatu duk! Eskerrak zubitarrek arrazistak ez omen diren, ijittuak onartu bait zituzten! Ijittoak eta, batzuek, gu! Zorionak! (nori? Jon, Elitxu eta Iñakiri, noski!)

Frontoiaren berritze lanak osatu ahal izateko, Udalak diru laguntza eskatu herritarrei.

KORO ETXEBERRIA

Joan den abuztuan bukatu ziren teoriar frontoiaren berritze lanak. Umore-Ona Elkarteak proposatu eta bultzatuak eta Udalaren baimena eta finantziaketarekin egin dira; hori bai, lan gehienak auzolanean. Partaideak diotenez oraindik ba omen dago oso beharrezkoa eta garrantzitsua den lan bat egin gabe dagoena; eskuin eta atzekaldeko kristalak jartztea. Lehen egin dituzten lanak hai-zeak eta euriak hondatu ez ditzan. Lan honen garapenak kostu handia

omen du egitasmoan, materialetan etab. aurrekontua nahi baino gehiago igotzen delarik.

Hau kontutan edukiz eta batez ere Goizuetarrok pelotarako dugun zaletasuna gogoan hartuz: zeren pilota lekua zegoen bezala ez zen partidu jokaterik, eta ez zuen pilotari berririk sortzeko berritasunik ematen, garrantzi handia duela aipatu beharra dago.

Dena den herritarrei diru laguntza eskatu digute, aurretik azaldu diren gastu horiek gainditzeko;

nahiz eta jende askok auzolanean lagundu izan, eskerrak ematen dizkiete hauei, baina ez omen da aski.

Gaztetxoentzat

8-14 urte bitartekoentzat. Otsailak 10, 17, 24 larunbatetan arratsaldeko hiruretan hasita *seiko urrea*, *eskoba*, eta *truk* txapelketa azkarrak izango dira. Bukaeran otsailak 24ean, irabazleei sariak banatuko zaizkie eta partehartzaile guztientzat **TXOKOLATEA**.

ZUGARRAMURDI

Bi eper granja muntatu dituzte


KORO IRAZOKI

Batzuk zerriak dituzte, bertzeak ardiak, bertze batzuk behiak. Eta orain gure herri huntan *eperrak* ere baditugu: bi eper granja muntatu dituzte.

Haundiena Kataleneko kaskoan egin dute eta orain 2.000 eper ditu bainan 3.000 sartu nahi omen dituzte hemendik gutirat. Bertzea Bereko-bentan dago eta hau ttikixegoa da, hunek 1.500en bat ditu. Eper hauen mesioea arroltzeak egitea da, gero bertze toki batean saltzeko.

Erran dugu bi granja hauek Zugarramurdin ditugula, bainan hau ez da sobera egia: Bereko-benta Baztanekin dugun pleitoaren baserri horietarik bat baita, eta Baztanerat ordaintzen ditu zergak nahitanahiez; eta Kataleneko kaskoak ere azken zurrumuruak diotenez afera iduritsutan ez ote den sartua...

Asteazken arratsaldero haurrendako Euskal Dantza kla-



seak Urdazubin

Nafarroako Gobernuak antolatuta *Euskal Dantza* klaseak ematen hasiak dire Zugarramurdiko eta Urdazubiko eskoletako haurrendako eta asteazken arratsalde guztiz autobus eskolarrean joaten dire Zuamurdiarrak Urdazubira eta hango frontoi estalian jira-bira dantza ikasten aritzen dire.

Basurde ehiztariak hasiak dire bueltaka

Basurde ehiztariak ere hasiak dire beren prometen mendian goiti-ta-behi-

ti. Bi kuadriletan ateratzen dire. Batzuk Lesakakoekin elkartuz asteburu guztirako Huescarat joaiten dire (han baitute beren txabola eta dena), hauek normalki ez dire hutsik bueltatzen. Bertze kuadrila berriz, egun baterako ateratzen da eta hurbileko mendiak kurritzen dituzte (Aritzakun, Auza, Urritzate, Gorramendi, e.a.)

BAZTAN



Loizu

Iruritako Batzarrea pilotalekua Loizun egitearen alde

MAÑONE

Hilbeltzaren hamaseian ospatutako Junta Generala edo Batzarre Orokorren gai bakarra, Iruritako Pilotalekua non kokatu izan zen. Javier Elizalde, Baztango Alkate eta Batzarrearen Presidenteak, Iruritako Batzarrearen emaitzak agertu zituen; 58 botu Pilotalekua Loizun egitearen alde eta 9 botu tren estazio zaharrean egitearen alde.

Dena den, Pilotalekua egin ahal izateko lortu beharreko permutak zirela eta, gatazka frango eman dira.

Alkateak proposatutakoaren kontra (Laputsaroiako 25.194,68 m. karratuak Loizu aldeko 3.000 m. karratuz trukatzea), Baztango Alkartasunak (BA) eta Herri Batasunak (HB) Iruritako 3.000 metroengatik Laputsaroiaren 6.000 eskeintzea eskatu zuten.

Azkenean, alkatearen proposamena atera zen garaile aldeko 18 boturenkin, kontra 13 eta abstentzio 1.

Nekazariek, San Anton eguna ospatu zuten

Goizean, Elizondoko txistulariak aritu ziren karriz karriz. Ondotik, Txomin Garmendia eta Patxi Etxeberria bertsolariak. Ordubatak alderat, urteroko zozketa egin zen. Hauek dira sariak, saritutako zenbakiak eta irabazlearen izenak: Behia 20.391 zenbakia, Alejandro Zelaieta Beartzundarrari (Etxeberriko Bordakoa) tokatu zitzaion; zeria 15.443 zenbakia, Arizkungo Larraldera joan zen, Felisa Lazkanori tokatu bait zitzaion. Urdaiazpikoa 19.448 zenbakiari egokitu zitzaion. Honen jabea, Antonio Irigoien

Urratsungo Dolarea etxekoa, azpilkue-tarra.

Laugarren saria, bi bildots 12.665 zenbakia oraindik ez da atera. Dirudie-nez, Iruritan saldua izan da.


Baztango Udalak hiru mozio gibelera bota

Herri Batasunak aurkeztutako hiru mozio, gibelera bota zuen Baztango Union Baztanesaren botoei esker. Hauxek izan ziren: lehena Josu Mugu-

ruzaren erahilketaren kondena, Soldaduzkaren aurkakoa bertzea eta El Salvadorrekiko elkartasun mozioa azkena.

Arizkunenea kultur etxearen ekipamendua

Arizkunenea kultur etxea, Espacio S.L. entpresak ekipatuko du. horrela erabaki du Udalak akordio baten bitartez. Kopurua 6.679.023 pezetetako izanen da; Nafarroako Gobernutik 5.040.000 pezetetako laguntza hartuko dutelarik.



BERTIZARANA

Oieregin Plaza berria egin asmo da

J.M.I.

Oieregin eraikitzen ari dituzten etxe berrien atzekaldetik egingen da aipatutako Plaza. Projektuaren arabera, 16.133.833 pezetetako aurrekontua du osotara, eta hoietarik 11.164.612 pztatan. Nafarroako Gobernuak subentzionaturik egonen da.



Garaian garaikoari egokitzen joan izan da ihauteria Leitzaan.

GOTZONE & ANTON

Orain dela ez urte asko arte kale-ratzen zen Plazaola aldizkari leitzarran honela zioen batek ihauteriaz: *Eguberriak ezin ahaztu eta... horra urte berriaren eta hiltzetaren eskuz ihauteria. Ihauteria: festa, farra, hotza, musika, dantza, atsoguretzea, ardoa... Menperatzen gaituen rutina puskatzeko aukera atsegina, gure piura tristea aldatzeko aukera, neguaren mamua lurperatzea eta... Gaurkotasunik galdu ez duen definiziorik egokiena dugu hau.*

Ihauteriak Leitzaan gora bera franko ezagutu izan du denboraren joan etorrian. Garaian garaikoari egokitzen joan izan zaio. Duela berrogeitamar urte eta egun egiten diren artean alderik badagoela ez dago dudan jarzterik. Dena dela, orduntxe bezalaxe gaur ere ihauteriaren helbururik nagusienak ongi pasatzea segitzen du izaten.

1956 urte arte Leitzako ñoteak Tolosakoekin batera ospatzen omen ziren. Gero aldatuak izan ziren

hiltzetara, *pesta ttiki* izenez, —nonbait *karna* horrek norbaiti konnotazio itsusiak zekarzkie—.

Usario guzietatik sekulan baztertu ez dena eta dudik gabe indarrez darrakion eskearena izan da. Honek ere itxuraldaketarik ezagutu duen arren.

Astelehena eta astearta izan dira eskearen egunak. Aurtengo urte arte, astelehenez Gorritzaran, Arkiskil, Erreka eta Sakuluko baserriak egin ohi izan ziren, asteartez herria eta Erasoteri zegokiolarik bere txanda.

Aurtengoan Aurrera Kultur Elkarte, ihauterien antolatzailea duguna aspalditxotik, egitaraua aldatu beharrean aurkitu da. Horrela, Alde Zaharra kenduta herriko gainerako auzoetan eskea igandez egitea erabaki da eta astelehenean, berriz, beti bezala egitea erabaki da. Asteartean, txanda Erasoteri eta Alde Zaharrari egokituko zaio aurtengotik aurrerantzean.

Gainerakoan, egitaraua azken urte hauen antzekoa izan da. Modu batez edo bestez herriak darraiki izaten festaren protagonista.



Leitzako ihoteak 89: Plazaola zaharra berpiztu dute

■ Herriko obra haundiak hasi dira

Ibili eta buelta, azkenik erabaki zen eta hasi ere herriko obrak: urbide sare berria (iturriena eta ur zikinena), argi-indarra, kaleen zola berritzea eta baserriarako bideak. Lehenengo fase hontako lanak hiruren bat urte iraungo du, eta bertako *Azpiroz y Saralegi S.L.* entresari eman zitzaion. Herriak 180 miloi jarriko ditu, eta Nafarroako Gobernuaren *Plan Trienal* deritzaion hortan sartzen dira obra hauek.

■ Hamalau ekipo futbito txapelketan

Lanbide Eskolak antolatua, Futbito txapelketa bat ari da jokatzen herritarren artean. Eta bertan hamalau ekipok hartzen dute parte. Kirola eta denpora-pasa negu parterako.

■ Euskararen zazpi Mankomunitateen bilera

Joan den urtarrilaren 22an, Leitzako Udaletxean, euskararen aldeko zazpi Mankomunitateen ordezkariak bildu ziren: Bortziriak, Malerreka, Leitzaran (*Leitza, Goizueta, Arano, Areso*), eta Ultzama, Imotz, Larraun eta Sakana. Bortziritako Mankomunitatearen presidentea den Arantzako alkateak egin zuen deia, eta bertan honako puntu hauek aztertu ziren: euskararen mankomunitate eta ekipo teknikoei eusteko haina diru ziurtaraztea Nafarroako aurrekontutan, Udal langileak euskalduntzeko plan orokor bat mamitzeko beharra, eta gau-eskola/euskaltegien egoera.

Adin-ederra

MIXEL

Joan den Urtarrilaren 17an, Herriko Etxeak antolaturik *adin-eder* hori goxoan eremaiten duten ehun bat saratar bildu zaizkigu bazkari baten inguruan Omoldian.

Ez ote litaikete elkarre berezi bat sortarazten ahal horiendako?

Iduritu zaigu, gauza horren gutizia agertarazi dutela arratsalde hortan.

Huna hemen ondotik gure Manex Bergarak *adin-eder* hori landatzeko eman bertsu batzuk:

Rugby: Sarak irabazi du Labatut-en aurka.

Eskolakoak ere jokatu dira Azkaine eta Senpereko haurren elkatearen aurka.

Adin Ederra

- I** Urte berria ongi hasteko, Saran egin da, bilkura
Tripotx jatea aitzaki hartuz, jendia biltzeko eskura
Bazkal ondoko berotua zen, hastapeneko freskura
Bi andre onek erran gaituzte, garbiki bezain gostura
Zaharren ona uzten zutela, gazte izanen kontura.
- II** Bihotz zolatik esker detzagun, badute, merezimendu
Gauza guzitan lehen urratsak, izaten diren zimendu
Jan guk orai izanen dugun, aski gogo, adimendu,
Gozo onean gurutzatzeko, ideia eta sentimendu
Denentzat lana baditake ta, ezin ditake gizendu.
- III** Gure eskutan dugunaz geroz, zaharrek gure geroa
Denek baterat ekar dezagun, bihotz odolez beroa
Nahi denean, borondatea, ez den gauza karioa
Egun beretik egin dezagun gure biharko giroa
Denek batean irabazteko, hartu dugun parioa.
- IV** Adin ederra dela diote, atxeman dugun adina
Urtien partetik dudarik ez da, batek badu bien dina
Bainan hor ere, xuxerik ez da, ez den denentzat berdina
Goizegi duten, hainitzek galtzen, guk daukagun atsegina
Elgar lagunduz, goxa dezagun, bertzen sabeleko mina.

EZKONTZAK

Jose Roman Matxiñena Ezkurra-M. Jesus Lasaga Zubieta (Urroztarra eta Etxalartarra) urtarrilaren 27an.

JAIOTZAK

Garbiñe Altugarai Alvarez Lesakakoa, abenduaren 30ean.

Andoni Martinez Guerra, Berakoa, urtarrilaren 3an.

Maite Rodriguez Telletxea Doneztebekoa, urtarrilaren 12an.

HERIOTZAK

Luis Irazoki, Sarakoa, urtarrilaren 10ean.

Marianita Moreno Torroba, Doneztebekoa, hilbeltzaren 11an, 60 urte.

Alejandro Altugarai Elizondo, Berakoa, urtarrilaren 11an, 79 urte.

Lucia Cestao Cestao, Leitzakoa, urtarrilaren 17an, 73 urte.

Teresa Tapia Mitxelena, Lesakakoa, urtarrilaren 17an, 82 urte.

Maria Dolores Alzuri, Arantzakoa, urtarrilaren 19an.

Oihana Gastearena Erregerena, Leitzakoa, urtarrilaren 21ean.


Jose Maria Treku Arraiago, Are-sokoa, urtarrilaren 21ean, 44 urte.

Maria Zapirain Estonba, Berakoa, urtarrilaren 21ean, 92 urte.

Dolores Etxegarai Etxegoien, Etxalarkoa, hilbeltzaren 26ean, 91 urte.

Belateko tunela

Aurreprojektuaren berri eman du Nafar Gobernuak



Duela berriki, iragan urtearen azkenaldera, Nafarroako Gobernuako kontseilari den Antonio Aragonek Belateko Tunelaren aurreproiektua eman zuen ezagutzera bilera batetan; Baztan, Malerreka eta Bortzirietako udal ordezkarien aintzinean. Gure esku artera ere iritsi da aurreproiektu horren kopiari eta horren laburpentxoia egitera goaz ondorengo lerroetan, berorren nondik-norakoak azaletik bederen ezagut ditzazuen. Bertzalde erran behar da proiektua datorren urtearen otsailerako ezagutzera emanen dela agindu duela Aragon jaunak.

PATXI LARRETXEIA

Aurreproiektu hau bortz ataletan dator banaturik:

- 1.- Sarrera.
- 2.- Deskripzio orokorra.
- 3.- Estudioa burutzeko erabilitako Metodologia.
- 4.- Konklusioak.
- 5.- Irtenbide desberdinak agertzen diren planotxoak.

Hona ondoren, laburki, aipaturiko atalek diotena:

1.- Sarrera:

Behobia-Iruña errepideak azken urteotan garrantzi handia eskuratu duela aipatzen da, izan ere, Europatik datozen ibilgailuen sarbide bilakatu baita. Errepide honen trabarik nabarmenena Belateko mendatea litzateke; malda gogorak, bihur-gune zorrotzak, lainoa, elurra etab... dela medio.

2.- Deskripzio orokorra:

Atal honetan, errepide zahararren irtenbide bezala kontutan eduki diren posibilitate guzien berri ematen da. Honetarako bi sail aipatzen dira; alde batetik orain dagoen errepideari egin ahal zaizkion hobekuntzak hartzen dira kontutan. Sail honetan bi aukera aipatzen dira; V-0 eta V-1. Lehena gauzak dauden bezala uztea izanen litzateke eta

***Tuneletan, malda,
%2aren azpitik izanen
litzateke, ibilgailuen
abiadura ez jeistearren***

bigarrena, berriz, errepide hori hobetzea.

Bigarren sailekoak, berriz, errepide zaharren irtenbideak dira. Honela, "W" letraz ezaguturikoak errepide zaharren mendebaldetik doazenak lirateke. Errepide zaharren ekialdetik doazenak, aldiz, "E" letrarekin ezagutzen dira. Irtenbide hauen bitartez aukera guziaz kontutan hartu nahi izan dira; honela W-1 eta W-2 irtenbideen arabera Doneztebe ingurutik hasiko litzateke errepide berria; E-1 arabera Arraioztik; W-3 eta W-4ak Almandoztik; E-2 eta E-3 Marin zubitik eta W-5 eta W-6 Zeberia errekarren bidea jarraituko lukete.

3 eta 4.- Estudioa burutzeko erabilitako metodologia eta ateratako konklusioak:

Bi atal hauek dira aurreproiektuaren zatirik mamitsuenak. Honela, metodologian erraten den bezala, irtenbide bakoitzean zortzi gauza hartzen dira kontutan:

- 1.- Estudio Teknikoa.
- 2.- Analisi ekonomikoa.
- 3.- Ingurugiroan izan dezakeen eragina.
- 4.- Eragin sozio-ekonomikoa.
- 5.- Aurreko kriterio guziaz kon-

paratuz egiten den analisia.

- 6.- Peajeari buruzko estudioa.
- 7.- Irtenbide guzietatik hobere-na aukeratu eta haien artean egiten den analisi konparatiboa.
- 8.- Konklusio orokorrak.

Konklusio orokorretan, faktore guziaz kontutan edukirik eta irtenbide guziaz konparatu ondoren, W-3 deiturikoa ikusten dela bidezkoen erraten da. Honek hiru tunel ditu: Bata 3 kilometrotakoa; bertzea 1.300 metrotakoa eta hirugarrena 615 metro dituena. Eraikuntza hauek ordaintzeko *peajea* ezartzeko asmoa agertzen da, nahiz eta laguntza publikoa ere beharrezko ikusten den, zeren bertzela ordaintzea ezinezkoa ikusten baita.

Honetantxe amaitzen da, beraz, gure lantxoak. Guk, oraingoz bederen, ez dugu aurreproiektu honi buruzko inolako baloraziorik egiten, horretarako gu baino jaioagorik izanen dela pentsatzen baitugu. Beraz, talde politiko, indar sozial eta bertze gisatako erakundeek badute zer eztabaidaturik. Honelako erabakiak, denen iritzia kontutan eduki ondoren hartu behar direla pentsatzen baitugu.

***125 Pzta. ordainduz
kotxeak eta 250
kamioiak, 101 urte
beharko lirateke
eraikuntzak ordaintzeko***

***Ehun mila metro
kuadratu pago oihan
hondatuko lirateke
"W-3"az ezaguturiko
irtenbidea burutuz gero***

Eduardo Gil Bera: *Non da nere zangoa han da nere gogoa*

Elgorrin Jaioa?... Ez!, Elgorriko Eduardo dugu baina, sortu-sortu, Tuteran sortua omen da. Elgorrikoa? Urte batekin etorri bait zen.

Ezagutu, ezagutuko duzue, seguraski, tipo nabarmena bait da: luze, luzea, hagitz, saski-baloi (baloncesto) jokalarien antzekoa, hain zuzen ere.

Ezaguna, garai batean Txomin Igandearekin batera han eta hemen, Bordatxon eta herriko bestaz besta aritzen zelako.

Desagertu zen, gero, Tuteran aldera joana, eta hemen dugu berriro, Narbarten, liburu pila besapean duelarik... Filosofo, poeta eta ipuinlari bihurtu edo jantzirik.



Lau entsegu liburu, bi ipuin liburu eta poesiaz bertze bat argitaratu ditu oraingoz Eduardo Gil Berak.

Zer dela eta berriro honat etortzea?

- Lakoizketa, Narbarten botaniko haundi bat, ikertzen ari nintzelarik, izan nuen ustegabeko bat: orain dela 80 urte, nere aintzineko ahaide batek utzi zuen bere etxea testamentuan ospitale bat egiteko, eta ez bazen egiten, bere familiarendako; afera lotan zegoen aspaldi eta etxea hústua eta abandonatua. Orduan, nik mugitu nuen afera, bueltak eta paperak egin, eta, hondarrean hementxe nago. Etxea familiagana bueltatu da, gure osabak nahi zuen gisan. Egia erran, afera ikasi baino lehen, banuen honat bueltatzeko asmoa, hasia nintzen baxterrak ikuskatzen.

Indianoak bezala itzuli baino lehen, zertan aritu zara denbora honetan?

- Frantzian eta Suizan barrera ibili nintzen mahatsa biltzen eta horrelako lanetan, baita kuadrila haundixko batekin kapataz gisan pinuak landatzen Erriberan, kajadeaorros batetan ere diruarekin eskuak zikintzen, Tuterako jardi-

nerua izan nintzen ere... Egia da, zuk erran bezala, indiano klase bat izaten ahal naizela; indianoa hagitz figura ezaguna zaigu hemen: joan beharra, bueltatzeko nahia, jendea krikaka ea diruduna ala nola bueltatzen den, pobrezia, dirutza, errabia, espantuak... izaten ohi da denetarik, baina guzi-guziengan hiru gauza: joan beharra, bueltatzeko nahia, eta tarteko denbora bueltarik gabekoa.

Molda dezakezu bizia, ogibidea, hemendik?

- Ez bizia, ez ja ere, ez dut nik *hemendik* moldatzen. Nik *hemen* moldatzen dut dena eta ez dena. Aski diferentea da, nere iduriko. Ez naiz inongo zentruri begira, dela Iruinean, Donostian, ezta inon ere. Hemen egonda, nik erraiten ahal dut erranairu famatu hori baina azpitik goiti: non da nere zangoa hor da nere gogoa.

Zergaitik hemen eta ez Iruinean edo Donostian?

- Suertatu naiz, ogibidez, hiri horietan eta bertzetan ere. Sekula ez naiz laketu;

jendea metaka ez da nere gustokoa. Iztia eta bakartia naiz. Pentsalari batek, ahal badu, erroak finkatu behar ditu bere pentsamenduak sueltoki hegaka aritzen diren tokian.

Lokalistak garenez, gu, zure ikuspuntua ezagutu nahi genuke. Beno, hobe erranez, inguru hauetako alabantza aditu nahi dugu, bota:

- Ez da publizitate sobera egin behar, bertzenaz, baxterrak domingeruz eta gipuzkuanuz beteko zaizkigu. Soilik erranen dizut gauza bat, ezin lokalistagoa: honat etorri eta etxea bizitzeko plantan paratzeko, obretan hasi behar zen; lanean aritu ziren Iturengo Inaxio zurgina eta Inaxio igeltseroa, eta Aurtizko Jose Luis fontanerua, eta heken kuadrilak, bistan da; jende horrekin lanean eta solasean egonez, ikasi dut nik unibertsitateko pito guziekin hamar urtez ikas nezakeen baino puskaz ere gehiago. *tipi-taparen* parada hau probexu behar dut hekeri eskertzeko.

JUAINAS


Euskadiko Kross Txapelketa otsailaren 18an Donezteben

MATTARI

Batzuren eznahiaren gainera, aurtentzen Euskadiko Kross Txapelketa Nafarroako lurraldean egingen da, Donezteben hain zuzen, otsailaren 18an.

Parte hartuko dutenen kategoriak hauek izanen dira: Kadete, Junior, Senior eta Helduak, bai gizonetzkoetan, bai emakumezkoetan.

Lasterketa hau C.D. Errekak antolatzen du, Baztan-Bidasoako Kirol Batzordeak eta bertze entitate batzuren laguntzari esker. Euskadiko lasterkari hoberenak ikusteko aukera polita izanen dugu, Doneztebera hurbiltzen bagara.



Baztan, Beti Gazte, Gure Txokoa eta Aurrera taldeen sailkapena

Baztan taldea 3. dibisioan dugu eta ongi jokatu arren, emaitzak ez dira halakoak eta sailkapenean gazki dabil. Lan haundiak egin beharko ditu 3. jarraitu nahi badu!

Lesakako Beti gazte, preferentzen dago eta hauek ere ahaleginak egin beharko dituzte datorrean urtean Berako Gure Txokoakin ez elkartzeko.

Gure Txokoak ziurtzat ematen du 2. erregionaletik igoko direla.

Leitzako Aurrera taldea ongi dabil eta hauek ere igotzeko itxaropena dute datorren urteko.

Pilota txapelketa ugari jokatzen ari dira

Momentu honetan gure inguruan pilota txapelketa ugari ari da jokatzen, gehienak bukatzeaz daude. Horrela Baztan-Bidasoako pilota txapelketaren finala, larruzko eta gomazko pilotakin, otsailaren 3an jokatuko da Lesakako Frontoian. Lesakarrak larruzko pilota-

kin eta Malerrekakoak paleta gomaz finalerako sailkatuak daude.

Luis Pikabea, Kepa Arretxea eta Luis M. Retegik zuzentzen duten pilota eskola eta Gure Txokoa Elkartearen artean, ehun pilotari heldu eta haurmodalidade ezberdinetako pilota jokoan jarri dituzte. Finalak, datorren otsailaren 11an Eztegara frontoian izanen dira.


Bortzirietako Futbol Txapelketan 200en bat hurrek parte hartzen dute

Urtarrilaren 13an, Beran eman zitzaion hasiera Bortzirietako futbol txapelketari. Hogei talde, 200en bat hurrez osatuak, bost aste burutan

arituko dira. Talde horiek herrika honela osatuak daude: 9 Berakoak, 7 Lesakakoak, 2 Etxalarkoak eta Arantzeta eta Igantziko bana.

Osasun kontseiluak

Osasun arloan azken aldiotan eman den berrikuntzarik nabarmenena



Baztango alkateak, J. Elizalde, Osasun Kontseilua desegin zuen bilera batetan partaide batek euskaraz hitzegiteagatik. Geroztik, 1989ko maiatza, ez da gehiago bildu.

Azken urte hauetan, Osasun Zentroak direla eta zenbait aldaketa somatu ditugu Nafarroako aunitz tokitan.

Aldateka batzuk oso nabarmena izan dira, errate baterako, lehen, Udal baten edo Udal batzuren esku zeuden mediku eta erizaina, hau da; Udalek aukeratzen zuten medikua edota erizainak, hauen soldataz arduratu eta egia erran bertze helbururik ez zen bilatzen, hain zuzen ere herrian medikua edota erizaina izatea bertzerik gabe.

1986tik honat Osasun arloko egoera aldatzen joan da eta Udalak bere ahalmen hura galtzen. Osasun Zentroak, Sanitario Taldeak, sare berri baten barruan aurkitzen dira eta hain zuzen ere herritarrengandik hurbilen daudelako, *Lehen mailako atentzioa* eskaintzen dutela erraten da.

Osasun sistema berri honen barnean bertze berrikuntza bat ere ematen

da, *Osasun Kontseiluarena*, alegia.

Osasun kontseilua

Kontseilu hau, herritarrek parte hartzeko sortua izan da eta honela osatzen da: Zonaldeko Udaletako 5 ordezkari, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko ordezkari bat, Administrazio Sanitarioko ordezkari bat, Lehen Mailako Atentzio Taldeko zuzendaria, Lehen Mailako Atentzio Taldeko bi ordezkari, Sindikatutetako 2 ordezkari, Enpresa erakundeetatik 2 ordezkari, Eskola Kontseiluko ordezkari bat, Elkarte ezberdinetatik 3 ordezkari.

Kontseilu honetako Presidentea, alkate edo kontzejal bat izanen delarik.

Osasun Kontseilu honek bertze funtzio batzuren artean, hauexek ditu: Zonaldeko Osasun Planak ezagutzea, herritarren parte hartzea bultzatzea, herritarren eritziak azaltzea eta neurri haundi batean herritarren eskubideak

babestea. Horregatik eta denon jakinen gainean izateko, **Osasun Zonalde bakoitzeko kontseiluko partaideak azaltzen ditugu:**

Bortzirietan: Presidentea: *M.M. Irigoien (Etxalarko alkatea)*; Gizarte zerbitzutik: *J. Sada*; Administrazioetik: *J. Agreda*; Zuzendaria: *A Valderrabanos*; Atentzio Taldetik: *J. Baiona, T. Garibai*; Sindikatuak: *ELA, CCOO*; Eskoletatik: *Igantzikoa* eta Elkarteetatik: *Gure Txokoa, AAVV Bera, Rikardo Baroja Eskola*.

Baztanen: 1989ko Maiatzaz geroztik eta kontseiluko partaide batek euskaraz hitzegiteagatik, Presidentea zen Elizondoko alkateak kontseilua desegin zuen.

Leitza: lehen aldiz osatzeko bidean dago.

Malerreka: Kontseilu berria osatzearen zai.

Edozein kezka, idea, kexua izanez gero hauengana zuzendu. Bide bat izan daiteke osasun egoerak hobetzeko.

ARANTZA ZABALA

Astrologiaren sorrera

Astrologia ez da izan beti orain den bezalakoa; gizonaren bizimodua aldatzen joan da eta berarekin astrologiaz egin den erabilpena.

Orain dela ehun urtekoa baino hagitzetx ere erosogoa da gaur egun daramagun bizimodua, adibidez; ez zuten automobilarik, ez eta elektrizitate indarririk... Eta lehen gizonekin konparatzen bagara, zer erranik ez. Gure bizi maila eta heziketa hagitzetx haundiagoak baldin badira ere, aitortu beharra dugu naturarekin daukagun harremana orokorki tikiagotuz doala.


Ezaguera duenez gerotzik, gizona ohartu egin da eguzkiaren garrantziaz; berotzen du, bizi guztia bultzatzen du. Urtero ziklo bera errepikatzen da: udaberria, uda, udazkena eta negua. Bertzalde hilargiak hilabetero osatzen du bere zikloa eta bere erresuma gaua da.

Euskal astrologi zaharra

Euskal astrologi zaharra, bertze hainbat herrirena bezalaxe, hilargiaren zikloan oinarritzen da. Nekazal eta itsaso lanetara mugatuta dago, lan bakoitzarako momentu hoberena bereizten duelarik. Ziklo honek 29 egun, 12 ordu eta 44 minutu irauten du eta bi zatitan banatu ohi da: hilgora -hilargi berrietik hilargi beterraino- eta hilbehera -hilargi betetik

hurrengo hilargi berriraino.

Gauza bat bi zati egitea da egiten ahal den banaketarik erraxena eta ximpleena. Hilargi berriko momentuan eguzkia, hilargia eta Lurra lerrotatuta daude; Lurratik ezin dezakegu hilargirik ikus -eklipsen bat ez badago behintzat-. Ondorengo egunetan gero eta zati haundixeagoa ikus daiteke ilunabarretan. Horrela haunditzen doa hilargi betearekin bere gehiengo lortzen duen arte, nahiz haunditasunean zein argitasunean. Gero hasten da tikitzen eta gero eta beranduago ateratzen, ia goiz aldera hurrengo hilargi berrirarte. Orduan berri errepikatzen da ziklo berdina.



1. eguzkia; 2. Lurra; 3. hilberria; 4. hilargi betea; 5. hilgora; 6. hilbera

Hilargi berria - gorapena

Hilargi berrian hilargiak eguzkia-rengandik indar hartzen du eta haunditzeko presa du, amas hartze luze bat egingo balu bezala. Hilargiarekin batera gauza guztiak goiti jo nahi dute eta hau da garairik egokiena martxan dauden gauzak gora egiteko, goiti haunditu behar duten landereak paratzeko, arbolak txertatzeko, negozio bat abiatzeko,... -beraz, ttipi-ttapa hamabostekaria momentu ezin hobean sortu da-.

Hilargi zaharra - beherapena

Hilargi betearekin eguzkia, Lurra eta hilargia, ordena honetan, lerrotatzen dira.

Hilargi beteak jendea harrotzen

eta erotzen duelako fama du. Gainera zientifikoki konprobatuta dago. Haunditzen ahal den guztia haunditu da eta pixkanaka beheraka hasten da, arrunt akabatu arte, hil arte. Garai honetan haziak ereiten dira, belarrak eta iratzeak metatu, zerria hil,... nolabait transformazio prozesu bat adierazten duten lanak. Sortzekotan, haziak hazia bezala hil behar du eta landare bihurtu, eta horretan beherapenak laguntzen du. Gorapenak berri haziari garatzen, haunditzen laguntzen dio.

FERMIN ALTZUGUREN

ETXEBIZITZAK

-**Etxe edo baserria** erosiko nuke. Berdin diozein egoeratan dagoen. Eskura ordaintzen dut. Diskrezio osoa. Jose Mari. Tfnoa: (948) 59 40 54

-**Lesaka.** Pisua salgai. Bittiria kalea-Gurutze etxea 2.C

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegarra ibilbidea 19, 2.A Tfnoa: 630455

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegarra ibilbidea 17, 4.D Tfnoa: 630964/257802

-**Bera.** Pisua salgai. Itzean. Tfnoa: 630743

-**Bera.** Baserri bat erosi edo alokatu nahi dugu. Argibideak Larrutxuki 1. Tfnoa: 630532

-**Lesaka.** Pisu bat alokatu nahi dugu Lesakan. Erreferentzi onekoak izan arren, kale gorrian gaude. Deitu tfno. honetara: 637796

-**Frantzes klaseak** ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 637969 Lesaka.

-**EGB klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630146 Bera.

-**Gitarra, baxua eta bateria** kla-

seak ematen dira. Interesatuak hurbil zaitezte Laia musika dendara. Tfnoa: 631059

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Interesetzen bazaizu deitu 631188 telefonora.

-**Pentax argazki makina** baten-tzat, bigarren eskuko objetiboak nahi ditugu. 28-80mmko bat bazenu oraindik hobeki. Tfnoa: 631188

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenentziako prezioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Asteburutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.

-**Zaldikume** bat saltzen da, urte batekoa. Interesatuak deitu 635096 Tfnoa.

SALEROSKETAK

-**Erretratuak** marrazten ditut. Galdetu Xut arropa dendan. Tfnoa: 637410 Lesaka.

-**Negozia ixteagatik** likidazio osoa egiten ari gara. "Kirolak" denda, Lesaka.

-**Kordioi zahar** baten bila nabil, parranda egiteko, dohain edo merke. Norbaitek edukiz gero Leitzako Euskaltegi "Ikastari"ra dei dezala. Mila esker. Fraz.

HARREMANAK

-**Oarso Bidasoako kazetari politenari:** Badakigu lanpeturik ibiliko zarela, alde batetik zeregin profesionalak direla medio eta bertzaldetik Irun aldean dituzun bertze egitekoengatik. Bainan hemen zure beharrea gaude eta uste dugu arrazoi horiek ez direla aski gutaz ahazteko. Espero dugu oroituko zarela astean bitan jarri genuela zita. Badagoela denetarako astia motel! **Ile tintatu berria eta bertze lau.**

-**Hogeiatarren bat** urteko irakasle batek harremanak izan nahi-ko lituzke edozein gauzarekin. Desesperatuta bait dago, baina brusoil dago. **Doneztebeko irakasle bat.**

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE-KOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

tipi-tapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____

HELBIDEA _____

HERRIA _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

AMAIUR



Vegasa[®]

sukalde eta bainu altzariak

Rosa Seminario 13 - DONEZTEBE

Tfnoa. (948) 59 44 00